

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Munduko pertsona orok dugu helburu kutsadura murriztea, eta hala ez bada, gutxienez gehiago ez sortzekoa bai. Beraz, hau kontuan izanik, ziurtagiria pertsona guztientzako baliogarria izan daiteke. Hori dela eta, ez gara merkatuaren segmentu bakar batean soilik murgilduko.

SEKTORE PUBLIKOA

Sektore publikoak, zehazki AESANk (Agencia Española de Seguridad Alimentaria y Nutrición), estatuko enpresei gure ziurtagira saltzeko baimena emango digu.

BEZERO KONTSUMITZAILEA

Bezeroak produktu bat erosterakoan, gure ziurtagiria erabiltzeko aukera izango dute, QRa eskaneatuz, eta horrela, bertan dagoen informazioaz baliatuz.

ENPRESA

Gure ziurtagiria estatuko enpresei salduko diegu, hauek euren produktuetan jar dezaten. Modu honetan, bezero gehiago erakarriko dituzte kutsadura murriztearen aldekoak direla erakustean.

PUBLIZITATE ENPRESA

Gure aplikazioa irekitzerakoan noizbehinka iragarki batzuk aterako dira. Hortaz ordaindu egin beharko digute haien iragarkiak agertzeko.

Bestalde, egia da ziurtagiri honen erabilpena soilik mugikorra dunentzat murrizten dela; hau da, bai haur eta bai adineko pertsona gehienak baliteke gure segmentutik kanpo geratzea. Hala ere, guk ez dugu bereizketa hori bultzatuko, denontzat baita erabilgarria. Honen erabilpenaren onurak denok jasoko baititugu.

